



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 26a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-24/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailearen 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituena. Irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00192. Galdera, osasun-azterketen itxarote-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (4. or.).
- 11-24/PES-00193. Galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00194. Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak lehendakaria Joseba Antxon Alonso Eguirrola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (5. or.).
- 11-24/PES-00195. Galdera, laboreetan tratamendu fitosanitarioak baliatzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskerari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00196. Galdera, unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilereari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (6. or.).
- 11-24/PES-00197. Galdera, Zizur Zendeako haur-eskolari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa). Aldi baterako administrazio-kontrataziorako izangaien zerrenda (9. or.).

J SAILA:

Ponentziak:

—11-23/PON-00003. Foruaren hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentzia. Lanak bukatzeko epea luzatzea (11. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-24/PRO-00003. Foru-lege proposamena, Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituenak

IRAKURKETA BAKARREKO PROZEDURAREN BIDEZ IZAPIDETZEA

2024ko apirilaren 22an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2024ko martxoaren 25eko Erabakiaren bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, onetsi zuen Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikuluko e) eta f) letrak aldatzeko foru-lege proposamena prozedura arruntaren bidez izapidetzea, eta hura argitaratzea agindu zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. eta 179. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. 2024ko martxoaren 25eko Mahaiaren erabakia aldatzea, zeinaren bidez xedatzen baitzen

Nafarroako Babes Zibilari eta Larrialdien Kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 53. artikulua e) eta f) letrak aldatzen dituen foru-lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea, eta aipatu proposamena irakurketa bakarreko prozeduraren bidez izapidetu dadin agintzea.

2. Zuzenketak aurkezteko epea irekitzea, 2024ko apirilaren 30eko 12:00etan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00192. Galdera, osasun-azterketen itxarote-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, osasun-azterketen itxarote-zerrendetatik kenduko diren pertsonen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendari asistentziala "egozpen automatikorako" gutunak bidaltzen ari da, gutunaren jasotzaileei osasun-azterketen itxaron-zerrendatik kanpo geldituko direla ohartarazteko. Departamentuaren aurreikuspenen arabera, zenbat pertsona egonen da egoera horretan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00193. Galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, jakitekoa ea zer dela-eta bideratzen diren Iruñera Lizarrako erditzeak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer arrazoi zehatz egon da PEI-00142 informazio-eskariari emandako erantzunaren eranskinean jasota ageri diren erditzeetako bakoitza Iruñera bideratzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-24/PES-00194. Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakaria Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuko lehendakaria Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bildu den legegintzaldi honetan edo honen aurrekoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernuko lehendakariak Joseba Antxon Alonso Egurrolari harrera egin al dio, harekin bildu edo harekin jan al du legegintzaldi honetan edo aurrekoan?

Hala baldin bada:

Noren ekimenez egin zuen hori? Noiz izan zen/ziren?

Nortzuk egon ziren horietako bakoitzean?

Zer gai jorratu zuten/zituzten?

Iruñean, 2024ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/PES-00195. Galdera, laboreetan tratamendu fitosanitarioak baliatzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskapenei buruzkoa

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, laboreetan tratamendu fitosanitarioak baliatzeari buruz Foruzaingoak bertatik bertara egindako ikuskapenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Foruzaingoak zenbat ikuskapen egin ditu bertatik bertara laboreetan fitosanitarioak baliatzeari buruz (produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoen ikuskapen teknikoa, aplikatzaile-karneta, baliatutako materialak eta nahasketak eta abar)? Zenbat salaketa jarri dira, arau-hausteak direla-eta, 2023ko urtariletik hona?

Iruñean, 2024ko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-24/PES-00196. Galdera, unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilerei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, unibertsitatei buruzko foru legea izanen denari begira Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan egindako bilerei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Departamentuan zer bilera egin dira unibertsitatei buruzko etorkizuneko legea dela-eta? Adierazi datak, parte-hartzaileak, jorratutako gaiak, trukaturako dokumentazioa (baldin eta halakorik trukatu bada) eta aktak (baldin eta aktarik bada).

Iruñean, 2024ko apirilaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-24/PES-00197. Galdera, Zizur Zendeako haur-eskolari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Zizur Zendeako haur-eskolari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan.

CCOO sindikatuaren salaketa publiko bati esker jakin dugu Hezkuntza Departamentuak bai-

mena eman duela, Zizur Zendeako Udalak eskatuta, bertako haur-eskolako lerroak 6tik 3ra murrizteko. Halaber, zenbait familia kezkatuta azaldu dira beren seme-alabentzako plazarik egon ez daitekeelako etorkizun hurbilean.

Hezkuntzako kontseilariak orain dela zenbait hilabete iragarri zuen 2024-2025 ikasturtean doakoa izanen dela 0tik 3 urtera bitarteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa Nafarroako haur-eskoletan izena emandako seme-alabak dauzkaten familia guztientzat, bai foru-gobernuak zuzenean kudeatutakoetan bai foru-gobernuarekiko itunak dauzkaten foru-erkidegoko toki-entitateen mende-ko haur-eskoletan. Testuinguru horretan, non erronka handia izan behar baitu eskaintza horren unibertsalizazioak, zaila egiten zaigu ulertzea lerroen murrizketa hori.

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du lerro-murrizketa hori dela-eta? Izan ere, Zizur Zendeako familia askok uste du bere seme-alabak plazarik gabe geldi daitezkeela haur-eskola horretan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-24/PES-00198. Galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Eliza katolikoak bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko higiezinak zaharberritzeko, leheneratzeko edo hobetzeko jaso dituen laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamariquek honako galdera hauek aur-

kezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakien:

Eliza katolikoak –alegia, Iruñeko eta Tuterako Artzapezpikutzak, elizbarrutiek, erlijio-ordenek nahiz Eliza horren mende dagoen eta Nafarroan ezarrita dagoen bestelako edozein erlijio-elkartek edo -institutuk– zenbat diru jaso du Nafarroako Gobernu departamentuen dirulaguntzatan 2000tik 2024ra bitarte bere jabetzako edo erregistro-titulartasuneko eraikinak osorik nahiz partzialki zaharberritzeko, hobetzeko, leheneratzeko eta abar?

Zer higiezinak (katedral, eliza, eliza bateko portada, monasterio...) jaso dute laguntza edo dirulaguntzaren bar bitarte horretan? Non daude horiek eta zer urtetan eman zitzaaien laguntza, zenbatekoa izan zen laguntza hori eta zer ekarpen egin zuen Eliza katolikoak horietako jarduketa bakoitzean?

Iruñean, 2024ko apirilaren 18an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

PER20230034. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa (funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa)

Aldi baterako administrazio-kontrataziorako izangaien zerrenda

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko apirilaren 22an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia bukatu baita (2023ko ekainaren 23ko 1. NPAO eta 2023ko ekainaren 30eko 137. NAO), Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztu du Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizialen aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda, deialdiaren 11. oinarrian xedatutakoaren arabera egina.

Aurkezturiko dokumentazioa ikusita, eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuko 5. arti-

kulan esleitutako eskumenen arabera, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizialen aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda (honekin batera doa), Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofiziala izateko lanpostu huts bat —funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa— oposizio bidez betetzeko deialdiaren ondoriozkoa dena eta deialdi horren 11. oinarrian xedatutakoari jarraituz egin dena.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuaren webgunean argitaratzea dadin.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko sistema informatikoetako teknikari-ofizialaren lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta C mailakoa (2023ko ekainaren 23ko 1. NPAO eta 2023ko ekainaren 30eko 137. NAO)

Deialdiaren 11. oinarrian ezarritakoarekin bat, aldi baterako kontrataziorako honako zerrenda hau osatu da:

Gainditzailen izen eta lanposturik gabeko suertatu diren izangaien zerrenda, guztira lortutako puntuazioaren arabera ordenatua:

| Izena | Hasierako posizioa | Deitzeko hurrenkera |
|----------------------------------|--------------------|---------------------|
| MACUA SÁDABA, CARLOS EZEQUIEL | 1 | 1 |
| VIDONDO PÉREZ, CRISTIAN | 2 | 2 |
| AGUAS GURPEGUI, FRANCISCO JAVIER | 3 | 3 |

(2024-04-22an eguneratutako zerrenda)

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00003. Foruaren hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentzia

LANAK BUKATZEKO EPEA LUZATZEA

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foruaren hobekuntza gaurkotzeko eta XXI. mendeko errealitate sozialera eta nafarren iritzira egokitzeko ponentziaren erabakia, 2024ko apirilaren 18koa. Hona testua:

“1. Ponentziaren lanak bukatzeko epea 2026ko abenduaren 31ra arte luzatzea”.

Iruñean, 2024ko apirilaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
